

Apartheid sistemaren euskal garroak

Koldo Sagasti

Bihar, hilak 21, Sharpevilleko saraskiaren urtemuga oroitzen da. 1960an, Hegoafrikako herrixka hartan, apartheid erregimeneko poliziak gobernu supremazistaren aurka-ko protestaldi baketsu bati eraso egin eta 69 lagun erail zituen. Ondorengo egunetako gorakada errepresiboak erregimenaren nazioarteko bakartzearen hasiera eragin zuen, eta hogeita hamar urte geroago bazterkeria sistemaren gainbehera. Triskantza hura gogoan, NBEk 1966an Bereizkeria Arrazistaren aurkako Nazioarteko Eguna izendatu zuen. Hegoafrikako arrazakeria sistema bertan behera erori zen, modu formalean behintzat, mundu mai-

lako boikot kanpaina erraldoi batek itota. Baina apartheidak indarrean dirau.

Horregatik, ez da kasualitatea Israelgo administrazio sionistak Hegoafrikako bantu hizkuntzatik hartutako adiera bat baliatu izana Zisjordaniako eremu okupatuetan ezarritako ghettoak izendatzeko: bantustan. Bantustanetan Palestina-ko bertako populazioa inguratu, isolatu eta bereiztu egin dute; horixe baita, Hegoafrikan bezala Israelen ere, apartheid sistemaren funtsa, bereizketa.

Baina denboran eta espazioan urrunekoa dirudien istorio hau uste baino gertukoagoa zaigu euskaldunoi, apartheid instituzionaleko sistema horrek bere

iraupena fisikoki bermatzeko behar dituen azpiegituren eraikuntzan EAEko partaidetza duen euskal enpresa bat ari delako lanean. CAF faktoriak Jerusalem ekialdeko eremu okupatuetan ilegalki kokatutako koloniak Israelgo administraziopeko hirigunearekin lotuko dituen trenbidea eraikitzen dihardu. Arrazakeria sistemaren makineriarekiko konplizitate horrek nazioarteko arretaren jomugan jarriko du biharko egunean Beasaingo konpainia, eta zuzendaritzak kalkulatu ez dituen ondorioak ekarriko dizkio, orain ez bada etorkizunean; akaso apartheid erregimenarekin gertatu zen bezala, porrot egiterainokoak. •

Ikimilikiliklik

Xabier Izaga
Gonzalez

Badirudi baietz, saguzarrak direla pandemiaren errudunak. Errudunak, hitz hori irakurri dut behin eta berriz.

XIV. mendeko izurri beltzaren «errudunak» arratoiak izan ziren, baina eman lezake katuak izan zirela, batez ere katu beltzak, epidemia sortu baino lehenagotik ere. Ez zuten bakteriorik barreiatu, ezta arkakuso bakterio-eramailerik ere, baina aurreko mendean aita santu batek, “Vox In Rama” dekretuan, katuak deabruzko errituetako funtsezko elementua zirela jakinarazi zuen eta hark ez zien onik egin felido haiei, Europa osoan

haien aurkako jazarpen ikaragarria hasi zitzaenez gero, leku askotatik desagertzerainokoa. Katuei ez zien onik egin eta jazarri zituzten fededunei ere ez, izurria errazago hedatu baitzen arratoien harripakari nagusia ia desagertuta.

Niri oso animalia atseginak iruditu zaizkit beti saguzarrak. Pentsa, etxeko leihoan agertu zen bati erretzen emandana go. Baina erretzen baino garrantzitsuagoak dira polinizatzen, intsektu-izurriak kontrolatzen edo hainbat landareren haziak barreiatzen.

Oraindik orain egin duten ikerketa batean aztertutako 400 saguzarrengan ko-

ronabirus mota asko topatu omen dituzte, Edwuard Holmes ikerlariaren hitzetan, «koronabirus zopa bat». Birus horiek, aspaldi honetan behin eta berriz entzun dugunez, oso zaharrak dira, saguzarrak eta gizakiak baino zaharragoak, Loizuko gizona baino ere zaharragoak. Orekan bizi izan dira beren inguruan, harik eta gizakiak basoak, bertako animaliak eta birusak astintzen eta hedatzen hasi ziren arte.

Bai, badakit, denok nahi dugu hobeto bizi, denok daukagu eskubidea... Horixe, koronabirus zopa, saguzar salda urrup, edan edo klik... •